

## **MUGIKORTASUNEN ETA CARLOS I-EN INBERTSIOEN INGURUKO MOZIOA**

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Mugikortasun Departamentuaren eta Carlos I-eko inbertsioen inguruko, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoen Batzordean 2017ko apirilaren 10eko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Mugikortasun atalean, birgaitzeko partidako 119.870,38 euro eta datuen integrazioarako (komunikabideen aurrean aurkeztutako proiektua) 331.977,74 euro ez dira erabili. Gainera, 2017ko aurrekontura ez dira pasako. Beraz, departamenduak diru hori galdu egingo du. 2016ko likidazioan horrela agertzen da.

Bestalde, 2015eko aurrekontuan, Carlos I-ean Foru Aldundiaren lanak bukatu eta gero, birmoldaketa jarraitzeko asmoz Udalak 225.000 euro aurreikusi zituen. Beste helburu batzuetarako erabili den partida hartan, 147.204,95 euro ukitu gabe gelditu dira eta, aurrekoak bezala ere, galdu egingo dira. Sinesgaitza. Batez ere, kontuan hartzen badugu Carlos I-ean hobekuntzak egiteko borondatea agertu duela zinegotzi-ordezkariek.

Batzordean, hobekuntza horiek asmo hutsak direla argi geratu da: gaur arte Pilar Aranak ez du ezer egin, eta hemendik aurrera dirua ere ez du izango.

Hori dela-eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du behean sinatzen duen zinegotziak:

### **KONTROL MOZIOA**

1-Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Carlos I-ean hobekuntzak egiteko aurreikusita zegoen partida berriro ere aurrekontuan jaso dezala.

2- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio komunikabideen aurrean aurkezten dituen proiektuak, datuen integrazioa kasu, gauzatu ditzala gero.

Donostian 2017ko apirilaren 12an

Josu Mirena Ruiz Martin  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**